

IKERKETA

FADI HASSAN PALESTINAR SIONISTAREN LORRATZEAN

Euskadiko Komunitate Palestinarreko presidentek Fadi Hassan du izena eta sare sozialetan dio sionista dela. Gazan jaioa da, Donostian bizi da eta urte gutxitan Palestinarekiko elkartasuna jorratzen duten eragile ugariren buruhauste bilakatu da Euskal Herrian. Gaur egun, Voxeko kidea ere bada. Pertsona honen ibilerei begira jarriko gara, nor den ikertzeko.

*Fadi Hassan Voxeko
ekitaldi batean,
2020ko ekainaren 21ean
Donostian.*

JUAN KARLOS RUIZ / FOKU

Pertsona honekin harremana izan duten dozena bat lagunak testigantzak bildu ditu ARGIAK ikerketa erreportaje honetan eta errespetatuko dugu haien izen-abizenak ez publikatzeko egin diguten eskaera. Jarraian irakurriko duzun erreportajea testigantza horietatik ateratako informazioan oinarritzen da. Fadi Hassan berarekin ere jarri gara harremanetan bere bertsioa kontatzeko aukera emanez, baina ez du parte hartu nahi izan.

“Gazako pertsona bat Donostiara joan da bizitzera eta kontrakorrik ez badiozu, zure telefonoa pasako diot”. Dei horrekin hasi da guztia 2015eko maiatzean. Espainiako Komunitate Palestinarreko presidente eta Palestinako Autoritateak garai hartan Madrilen duen enbaxadako aholkulari Marwan El Burinik jarri du harremanetan Fadi Hassan Euskal Herriko Biladi elkartearekin.

Palestinaren eta Euskal Herriaren arteko harremanak sendotzeko lanean ari den irabazi asmorik gabeko elkarteak da Biladi, 2003an sortua. Orduan, Bilbon du egoitza nagusia eta Donostian ordezkaritza ireki berria. Hassani kide gipuzkoarraren telefono zenbakia eman eta elkar ezagutzeko hitzordua jarri dute. 2015eko maiatzaren 19a da eta Boulevardeko Barandiaran kafetegian batuko dira. Ez da egunero iristen palestinar bat Euskal Herrira –hamabost ere ez dira guztira–, eta elkartearekin kolaboratzeko eskaintzea da plana. Harremana, baina, ez da oso ongi hasiko.

Daniel Lobato @dlobatob · 2017 mai. 17
Además de ser un acosador, machista y violento, es una fantástica marioneta para el sionismo.
Realmente lamentable

Fadi HASSAN @FadiHASSANCPE
@dlobatob @mdeltell eta 10beste erabiltzaileei erantzuten
tu eres un hijo de puta y me gustaría saber quien eres y localizarte
soy sionista con mucha honra, lo de acosador machista y violento de donde lo sacas!
puto rojo enfermo mental

1:30 PM · 2020 ira. 8 · Twitter Web App

Hassanek arratsaldean berriro deitu-ko dio eskaera bat egiteko: Palestinareki-ko elkartasunarekin kolaboratzen duten Donostiako pertsona guztien kontaktuak nahi ditu. Besteak ezetz esango dio. Exigentzia tonoan eta modu errepikako-rran hasiko zaio idazten eta Biladiko kideak, azkenerako itota, blokeatu egingo du. Hurrengo egunetan, Biladiren Bilbo-ko delegaziora hasiko da deika Hassan.

Fadi Hassan ezagutu dutenean, Biladiko kideak buru-belarri dabilta urteroko emakume palestinarren zinema zikloa prestatzen. Handik hiru astera izango da, ekainaren 16, 17 eta 18an. Pozik daude, egitarau txukuna osatu eta gonbidatu palestinarrek ekarri dituzte: zinema zuzendariak, poeta bat, idazle bat... Lehen bi egunak Donostiako Koldo Mitxelena aretoan antolatatu dituzte, eta hirugarrena ondoko Kaxilda kafetegi eta liburu-dendan.

Bere burua Gazako palestinarrak gisa aurkeztu du, duela 500 urte Espainiatik juduak kanporatu zituztela esanez hasi da, eta gogorarazi du gaur egun sefardi hauei itzultzeko eskubidea aitortu diela [Mariano Rajoyren Espainiako] gobernuak. “Goiz edo berandu bere herrira itzultzeko eskubidea dauka mundu guztiak, eskubide hori ezin zaio inori kendu”, dio. Pelikulako eszena bati erreferentzia eginez, eta bere aurretik palestinarraren identitateari buruz publikoko pertsona batek egin duen iruzkinari erantzunez, “zer erru dute militar israeldarrek?”, galdetu du. Berak bakean bizi nahi duela dio, haur zela lagun israeldarrak zituela, eta egun arazoa Israelgo eta Palestinako politikariak direla, biktima berriez, herria. Mahaitik, erdi harriturik geratu den zuzendari palestinarrrak, eztabaidatzera sartu gabe,

erantzun dio Palestina eta Israelen arteko gatazka politikoa berak egin azalpena baino konplikatuagoa dela, eta solasaldiarekin jarraitu dute.

Amaitutakoan etorri da lehen tentsio una. Hizlari eta antolatzaileak kalera atera eta ondoko jatetxe batera afaltzera doazela, Errege Katolikoak kalean barrena atzetik irainka jazarriko ditu Hassanek, "erradikal nazkagarriak" eta gisakoak botaz. Jatetxean ere sartuko da, mahaiaren bueltan eseri diren gonbidatuak estu hartuz. Azkenean, zinema zuzendari palestinarra izango da zutik jarri eta Hassan tabernatik botako duena. Antolatzaileak kezkatzen hasiak dira.

Hurrengo egunean, berriro antzeko zerbait gertatzeko beldurrez, Biladiko kideek aurretik Donostiako Udaltzaingora deitu dute eta hauek erantzun diote Hassan dagoeneko ezaguna dutela, kontuz ibiltzeko, aurretik zenbait istilu izanak dituela. Lehen istilu handia, hirugarren egunean iritsiko da.

Gaur egungo Palestinako zine eta literaturaren ikuspegia. Gai hori hartu-



Emakume arabiarren zine erakustaldia

Muestra de cine de mujeres árabes

**EKAINAK 16 ETA 17
16 y 17 DE JUNIO**
18.30-20.30

Programa:

Ekainak 16 de junio
Filma:
Mi amor me espera junto al mar
(My love awaits me by the sea)

Ekainak 17 de junio
Filma:
Villa Touma

Lugar:
Biblioteca
Koldo Mitxelena
de Donostia
(Salón de Actos)

biladi **SODIPAZ** **HEWENDO** **KAXILDA**

ta dira aritzekoak Kaxildan Ula Tabari zinema zuzendaria eta Asmaa Azaizeh kazetari eta poeta palestinarra. Biladiko kideak urduri daude, ez dute nahi Hassanek ekitaldia oztopatzerik eta lokalaren jabeek azaldu diete pertsona horrekin zer gertatu zaien.

19:00ak dira, saioa hasteko ordua eta Hassan ez da etorri. Hasi egingo dira. Handik gutxira helduko da. Kaxildako arduradunek, atearen aurrean jarrita, ez diote sartzen utziko. Ez du ongi hartu. Irainka, bultzaka, oihuka hasiko da. Jira-buelta batzuren ostean, alde egin eta Ertzaintzarekin itzuliko da aurpegiatzeko diskriminatu egin dutela, bere ideologiagatik ez diotela sartzen utzi nahi. Salaketa jarriko die epaitegian Biladi elkarteari eta Kaxildari, eta hasiera batean 1.000 euro eskatu badizkie ere, amaierarako 10.000 euro eskatuko dizkie kalte-ordain gisa.

BILADI JAZARPENAREN BEGI-PUNTUAN

Handik aste gutxira, 2015eko uztailaren 9an, Hassan Biladiren Bilboko egoitzan agertuko da. Epailearen aurrean eginiko kontakizuna berreskuratu dugu, Bizkaiko Lurralde Auzitegiko 90146/2017 ebazpenetik:

“13:45ean, salaketa jarri duen pertsona [Biladiko kidea] bulegoan zegoen txirrinak jo zuenean. Jaitsi zen eta kanpoan gizon bat aurkitu zuen beste mutil batek lagunduta. Salatzaileak aurretik Donostian berekin arazoak izan zituenenez, ez zion sartzen utzi. Fadi Hassan saiatu zen nola edo hala bulegoara sartzen, nahiz eta salatzaileak joateko esan, Ertzaintza deituko zuela. Salatzailea azkenean ondoko taberna batean sartu zen 112ra deitzera, Hassan atezain automatikoa temati jotzen eta ateari ostikoka ari zen bitartean. Azkenean salatzailea zegoen tabernara joan zen, ukabilarekin etengabe jipoitu egingo zuela keinuka, jotzera iritsi gabe, *marikoi zikina* oihuka eta kalera ateratzeko esanez. Salatzaileak dio Hassanek bere aurkako ja-

rrera hartu duela eta ez duela bakean uzten”.

Egun hartan ezer gehiago gertatu ez bada ere, telefonoz deitzen eta mezuak idazten jarraituko du Hassanek, pixkana irainetik mehatxura igarotzeko. Uztailaren 27an, Biladiko kide bati, familiarekin dagoela mugikorrera deituko dio zenbaki ezkutuarekin.

–Bai, nor da?

–Hilko zaituena naiz.

Nahikoa da. Agortu zaie pazientzia. Biladikoek ez daukate heriotz mehatxuak jasateko indarririk eta Hassanen aurkako salaketa jarriko dute epaitegian.

"NOR BIDALI DIGUZUE?"

Biladiko kideek haserre deituko diote Madrilgo Palestinako enbaxadako Marwan El Buriniri, aurpegiatzeko ea zergatik bidali zieten gizon hori. Elkarreko kideak jazartzen eta taldearen lan-dinamika lehertzen ari dela aurpegiatzeko diote. Honek adieraziko die ez zekitelarik halakoa zenik eta saiatzeko direla gerarazten. Giroa nahasten hasi da.

Hilabeteak eta urteak pasako dira, eta Hassanek berdin jarraituko du. Sententzietatik ateratako ondorengo informazioak erakusten du –online bertsioan PDFak loturik– epaitegiatara heldu diren zenbait liskar.

2015eko abenduaren 10ean zigortu egin zuten aurrez aipatu dugun Biladiko kide bati heriotz mehatxuak egiteagatik. Epaileak adierazi zuen guztiz sinesgarria zela salatzailearen lekukotza eta urruntze agindua jarri zioten. Errekurtsoa jarri zuen eta atzera bota zioten.

2016ko urtarrilaren 25ean maizter bizi zen Donostiako Alde Zaharreko etxeko jabearen alaba jo zuen. Emakumeak salaketa jarri zion, eta berak, kontrasalaketa, adieraziz emakumeak jo zuela bera eta ondoren bere burua zauritu zuela. Martxoaren 30ean atera zen epaia: lesio arinak eragitea egotzita, Hassan zigortua. Errekurtsoa jarri zuen



Hitzaldia / Conferencia:

Gaur eguneko Palestinako zine eta literaturaren ikuspegia

Panorama actual de cine y literatura en Palestina

Con la participación de:
Asmaa Azaizeh (periodista y poeta)
y Ula Tabari (directora de cine).

ekainaren 18 de junio
Kaxilda Liburu-Denda
Plaza Easo 2, Donostia
19:00

biladi **HEWENDO** **KAXILDA**

Con Alhambra, 1937, Iruia, Palestina

Biladi elkarteak 2015ean antolatutako zineforumeko afixak.



BDS mugimenduak bultzatutako Palestinako Eskubideen Aldeko Ekimen Instituzionalak Sustatzeko Foroan sartzen saiatu zen Hassan, ez zioten utzi baina. Bertara zihoazanak iraintzen eta barnera sartzen saiatzen jarraitu zuenez, atxilotuta eraman zuen Ertzaintzak.

eta epaia aldatu ez bazen ere, bere egoera ekonomiko ahula argudiatuta, zigor ekonomikoa murriztu zioten.

2016ko azaroaren 14an Biladi eta Kaxildaren zineforumean sartzen ez uztegitik berak abiatutako epaiketa galdu zuen Donostiako epaitegian. Arrazoi ideologikoengatik diskriminatu egin zutela ez zela demostratuta geratu ebatzi zuen epaileak, Koldo Mitxelenan, adibidez, bere iritzia emateko aukera eman baitzioten. Errekurtsoa jarri zuen, baina atzera bota zioten.

2017ko urtarrilaren 27an Donostiako Miramar jauregian Palestinako okupazioaren aurka Israel boikota sustatzen duten Espainiako Estatuko 150ekin bildu ziren Mundubat elkarteak eta Rescoop sareak antolatuta. Tartean zen Omar Barghouti BDS kanpainaren sortzaile eta koordinatzailea –gaur egun Israelek preso duena–. Bertan sartzen saiatu zen, baina ez zioten utzi. Bere jarrera oldarkorra salatuz, Ertzaintzari deitzen amaitu zuten antolatzaileek. Agenteak etorrita ere, beste 20 aldiz saiatu zela sartzen adierazi zuten hauek epaiketan, eta atxilotuta eraman zutela autoritateari desobedientzia egotzita. Jardunaldietara sartzen ari zirenei “putakumeak eta hiltzaileak” oihukatzen zien Hassanek bitartean. Ertzainei mehatxu egin zien, kalean ikusten bazuten kontuz ibil zitezela. 2018ko maiatzaren 4an zigortu zuten. Errekurtsoa jarri

zuen eta epaia aldatu ez bazen ere, bere egoera ekonomikoa argudiatuta, zigor ekonomikoa jaitzi zioten.

Eta 2019ko uztailaren 3an, Kaxilda liburutegiak Palestinako futbol talde baten egunerokotasunari buruzko *Markaz Tulkarem, el retorno del equipo* fotokazetaritza liburua aurkeztu behar zuen egunean, Hassan Donostiako Gipuzkoa plazan zeukaten liburu azokako postura agertu zitzaizen oldarkor, irainka eta bultzaka. Gainera kientzeko bultzak egin ziotenean, berari eraso egin ziotela esanez, haien aurkako salaketa jarri zuen. 2020ko azaroaren 30ean izango da epaiketa Donostiako auzitegian. Handik pasatzen ari zen eta iskanbila ikusita erdian sartu zen pertsona ere akusatuen aulkian eseriko du.

Abokatuen elkartearen deserosotasunak sortzen ditu Fadi Hassanen izenak, are gehiago, epaiketa baten harira ofizio abokatuari aurpegian ukabildakada jo zionetik. ARGIAk jakin duenez, elkarteko abokatuak iritsi dira planteatzera pertsona honek justizia unibertsalaren abusuzko erabilera egiten duela.

“EZ GENUEN EZAGUTZEN”

Marwan el Burini Madrildik El Salvadorrera joan zen bizitzera duela hiru urte eta gaur egun Palestinako enbaxadorea da bertan. Bera da Euskal Herriko kontaktua eman ziona hasiera batean. ARGIA berarekin harremanetan jarri da

jakiteko zer duen esateko. Ongi oroitzen du Hassan eta oraindik ere iristen zaizkio bere albisteak, sare sozialetan idatzi izan dituenak.

Madrilgo Palestinako enbaxadan ezagutu zuen, bertan egiten ziren ekitaldietara agertzen hasi zenean. Urtebete egin zuen Espainiako Estatuko hiriburuan, eta egun batean, Euskal Herrian enpresa handi batean lana aurkitu zuela eta ea han inor ezagutzen zuen galdetu zion.

Sei urte geroago, Burini erabat damututa dago kontaktua erraztu izanagatik. “Pertsona batekin hamar minutuko elkarriketen bidez egon bazara, ezin duzu ezagutu”. Palestinako enbaxadara helitzen diren guztiei laguntzen saiatzen direla dio: hiri bateko eta besteko kontaktua, lana aurkitzeko laguntzak, dirua ere utzi izan diote bati baino gehiagori. “Euskal Herriko kidearen kontaktua eman genion, berarekin konfiantza genuelako, aktiboak zirelako Palestinaren alde. Eta Hassan desagertu egin zen”.

Eragile sozialetatik kexuka hasi zitzaizkionean, pertsona hori ikertzen hasi eta harekin harremanetan jarri ziren. “Esan nion bakean uzteko Biladiko jendea, ez hurbiltzeko beraiengana, ez esateko inoren ordezkari zenik, ez zuelako inork aukeratu”. Irainka eta mehatxuka hasi zitzaion, whatsapp mezuak eta e-postak etengabe bidaltzen. “Blokeatu egin behar izan nuen. Ez zen normala egiten zuena”.



2015eko abenduaren 31n, Fadi Hassaneh –ezkerretik hirugarrena– prentsaurrekoa eman zuen Siriatic iritsitako errefuxiatu batzuei lagundu izana aldarrikatuz. Bi aster CEAR elkarteak adierazi zuen gauzak ezin zirela horrela egin eta Sevillako harrera-etxe batera eraman zituzten.

“Aurretik ez nekien, baina gero jakin genuen Madrilén alokairua ez zuela ordaintzen, borrokak izan zituela, Palestinaren aurka hitz egiten zuela, Gazako jendea atzeratua zela esaten zuela, Israelen laguna dela, Israel maite duela... eta hori Euskadiko Palestinar Komunitateko presidentea dela dioen bitartean. Salaketa asko izan du, leku batzuetara joan, kontsumitu eta ordaindu gabe ospa egiten zuelako, ekitaldietara joaten zelako eta zalaparta montatu, leku askotan ez zioten sartzen uzten, salaketa jarri zion bizilagunak...”. Madrilgo Palestinako Enbaxadatik gutun ofizial bat bidali zuten udaletxeetara, GKEetara, aurrez aipatutako sareetara, esanez Hassaneh ez zuela zerikusirik beraiekin, ez zuela inor ordezkatzeko. Gaur egun ere, hori da Burinik garbien utzi nahi duen ideia. “Gogotik damutzen naiz Euskal Herriko jendearen kontaktua eman izanagatik, gaizki utzi gaitu pasa den leku guztietatik”, borobildu du.

INOR ORDEZKATZEN EZ DUEN ELKARTEKO PRESIDENTEA

“Gaur gurekin hemen daukagu ez edozein palestinarr, baizik eta Euskadiko Komunitate Palestinarreko presidentea Fadi Hassan”. Hala aurkeztu dute Kataluniako 8TV telebistan.

Euskal Herrira iritsi eta urtebetera, 2016ko irailaren 16an, Hassaneh Eusko Jaurlaritzaren elkartearen erregistroan

Euskadiko Palestinar Komunitatea ize-neko elkartearen erregistratu zuen, beste bi pertsonarekin batera –Facebookeko orria martxoan sortua zuen izen berekin-. Behin elkartearen sortuta, komunitateko presidentea gisa mintzatuko da aukera duen leku guztietan.

2017ko maiatzaren kokatuko gara. Bartzelonako *Literal* liburu azokara erresistentzia palestinarraren nazioarteko ikurretako bat den Leila Khaled gonbidatu dute hitzaldi bat ematera. Lobby israeldar-zalea asaldatuta dago eta kritika gogorak zuzendu dizkiote Ada Colaren udalari eta ekintzaile palestinarra fermuki defendatu duen CUP alderdiari. Hitzaldia bertan behera uz-

teko eskatzen dute. Ez da hala gertatuko eta 2.000 lagunek leporaino beteko dute aretoa. Bertan da Hassan ere, eta gero aitortuko du hitza hartzeko asmoa zuela, nahiz eta azkenean ez hartu.

Hitzaldiaren hurrengo egunean, telebistara eramango dituzte batetik, Bartzelonako Komunitate Juduko presidentea eta Espainiako Komunitate Juduen Federazioko presidentea Uriel Benguigui; eta bestetik, Fadi Hassan Euskadiko Komunitate Palestinarraren izenean. Funtsen biak ados daude eta Khaleden oso bestelako mezua emango dute.

“Palestinarra naiz eta Bartzelonako Udaleri eskatzen diot barkamena eskatzeko Kataluniako eta Palestinako herri-tarrei. Khaleden diskurtsoak ez du ezta palestinarren %1a ere ordezkatzeko”; “Gure sufrimenduekin negozioa egiten dute Khaled bezalako terrorista palestinarrek, gatazka interesatzen zaie”; “Leila ikustera joan nintzen baina soilik bost minutu agoantatu nituen, alde egin nuen. Ez zegoen giro sanorik. 2.000 Leila zeuden bertan, fanatikoak. Giroa nazkagarria zen” eta “Uri-ren ondoan esertzea ohorea da niretzat” gisakoak botako ditu Hassaneh.

“Miragarria da. Benetako argia zara. Zer mina sentitzen dudana [agintariak] biolentziaren ahotso hautatzen dutenean. Ekar zaitzateazu. Hau da benetako esperantza”. Lobby israeldarrekin harremanak izateagatik ezaguna den Pilar Rahola

Madrilgo Palestinako
Enbaxadak gutun
ofiziala bidali
zien eragileei
Hassaneh ez zuela
inor ordezkatzeko
argitzeko



*Espainiako Komunitate
Juduen Federazioko
presidente Uriel Benguigui eta
Fadi Hassan telebistan elkarri
bostekoa ematen.*

PILAR RAHOLA / TWITTER

kazetaria erabat hunkituko du Hassanek eta berari “buruzagi palestinarra” deitzera iritsiko da. Une gorena amaierarako utzi dute, Benguiguiaren eta Hassanen arteko bostekoa kamerari begira, biak irribarretsu eta alkondara zuria soinean. Israel eta Palestina elkarri eskutik hartuta, gatazkatik urrun, berradiskidetzea posible da. Horratx bakea, telebistan zuzenean emitituta. Ez da Palestinako politikan aditua izan behar ulertzeko lobby israeldarrarentzat Hassanek bete dezakeen rola erresistentzia deslegitimatzen, eta horixe aurpegiratu dio batek baino gehiagok sare sozialetan. Hauetako bati emandako erantzuna da erreportajea irekitzeko aipatu dugun txioa, bera sionista dela eta harro dagoela dioena.

“Buruzagi palestinar” honek, nor ordezkatzeko du baina? Elkarteari “komunitate” deitu arren, hiru pertsona behar dira legalki erregistratzeko: Presidente, diruzaina eta idazkaria. Presidente Fadi Hassan da. ARGIAk beste bi pertsonak aurkitu ditu, noizbait Euskal Herrira iri-

tsitako palestinarra. Ez bata, ez bestea ez daude ados Hassanek elkartearen – eta palestinarren komunitatearen – ize-nean darabilen diskurtso politikoarekin. Biek diote ez dutela sekula elkartearen erabakietan parte hartu eta ez dutela parte izaten jarraitu nahi. Dimisio hauekin, badirudi, beraz, existitzen ez den komunitate baten izenean hitz egiteko aukera ematen dion elkarrekin kolokan eduki dezakeela etorkizuna.

ORAIN, VOXEKO KIDE

2020ko ekainaren 21a. Alderdi politikoak EAEko Legebiltzarrerako hauteskunde kanpaina murgilduta daude. Vox espainiar ultraeskuindarrak Donostiako Alderdi Eder aukeratu du ekitaldia egiteko. Hogeitabat jarraitzaile batu dira eta bertan da Fadi Hassan, inguruan 50 bat ertzain perimetroa zaintzen ari dira, eta hauen inguruan 150 bat laguneko protesta antifaxista.

Euskaldunak zapaltzaileak direla, “euskarren inposizioa” ezin dela onartu, te-


rroristei egurra eman behar zaiela eta halakoak bota dituzte. Espainia konplexurik gabe salbatzera datoz. Arazoak ekitaldiaren amaieran datoz, ordea. Kontxako pasealekutik atera nahi dute hiriaren erdigunera, eta jendea inguruan jarraika daukate, nahiz eta Ertzaintzak egurra partitu. Hassan Ortega Smithen bizkarrean doa serio. Voxeko kidea ote da, ala besterik gabe, jarraitzailea? Zalantzak handik bi astera desagertuko dira, Groseko hautesleku baten alderdi horretako ahalduen gisa igaroko du hauteskunde eguna.

Vox eta lobby israeldarren arteko harremanez zenbait artikulua argitaratu dira azken aldian Espainiako hedabide independenteetan. *La Marea* adibidez, ikertu dute lobby israeldar nagusiak Fundación Friends of Israel, Fundación Hispanojudía edo ACOM direla, eta gainera, eskuin muturrak kontrolatzen dituela.

ACOM da handiena. Eragile honek bere burua “eragile apartidista” gisa definitzen badu ere, ez du ezkututzen eskuineko alderdiekin duen gertutasuna. Nahiz eta Voxen badiren nazismoarekin bat egin duten kideak, Twitter bidez alderdi honi publikoki eskerrak eman zizkieten bere interesen “gotorleku” izateagatik. Argazki batek ilustratzen zuen mezua: ACOMeko presidente Ángel Mas, Voxeko Santiago Abascal eta Ivan Espinosa de los Monterosekin.

Lobby honen jardun nagusia Espainiako Estatuan ere indarra hartzen ari den BDS kanpaina borrokatzea da. Udaletan Palestinarekin elkartasunez halako neurriak onartzen direnean, epaitegietara eramaten dituzte, “diskriminazioa” salatuz. Dagoeneko milaka milioi euroko kaltea egin dion BDS kanpaina hau oso serio hartzen du Israelek, eta Benjamin Netanyahu 2015ean “arriko estrategiko” gisa definitu zuen, kanpainari nazioartean aurre egiteko ministerio propioa ere sortuz. Urtean 72 milioi dolarretik gora bideratzen dituzte borroka honetara.


Euskal Herrira itzulita, bakarrik al dago Hassan ala ACOM gisako norbaitek babesten du? Inork ez daki ziur. ARGIA berarekin harremanetan jarri da eta ez du galderarik erantzun nahi izan. “Espioia bada, oso baldarra da”, dio berarekin istilu ugari izan dituen elkarriketatuetako batek. “Israelen babesa? Bai zera! Horiek ez dute Hassanen profileko jendea bilatzen. Ez da batere zuhurra. Protagonismoa izugarri gustatzen zaio eta burutik gaizki dagoen tipo bat besterik ez da”, uste du El Salvadorreko Palestinako enbaxadoreak.



Comunidad Palestina de EuskadiESPAÑA
 الجالية الفلسطينية في أوسكادي إسبانيا
 TRUMP el puto amo, si yo fuera gay te chupare la polla jefe! Pero lamento no ser gay, envíame a milania y si veo que no tiene polla le chupare el chocho. Eres mi dios, eres el más tonto de todos los tontos, eres la inspiración mía, todos se han reído de ti, pero tu lo sabías, que se reí más el que se reí al final, pon la embajada de EEUU donde quieras, pero a nosotros también, una embajada de EEUU para Israel y otra para palestina en la ciudad asquerosa que no mola nada Jerusalén, enseña a Israel y a la AP quien manda, hacelo, di a Abas y a Netyahoy "YOU ARE BOTH FIERED" son muy inteligentes, y no se necesita a inteligentes en el gobierno israel palestina se necesita a un israelí palestino



Comunidad Palestina de EuskadiESPAÑA
 الجالية الفلسطينية في أوسكادي إسبانيا
 Comunicado: el diario vasco anula su cita de hoy con el presidente de la CPE después de recibir coacciones y presiones del gobierno vasco, aunque prometen reflejar algo en el periódico sobre una pregunta que va a hacer el presidente de la CPE a los de la conferencia sobre las reclamaciones al derecho a decidir, el derecho a decidir SI, la unión sagrada entre todos los pueblos de España SI, Otegi NO, MÁS NO, IBARATXEA NO aunque en muchos temas SI, VIVA IBARATXEA VIVA las RGI, VIVA el gogehaim y el torre Iberdrola y el metro de Bilbao, derecho a decidir SI, independetzia NO, independiztia mis cojones, EL DIARIO VASCO NO, ARriba EUSKDI, ARriba MADRID, ARriba CATALOÑA, VIVA ESPAÑA UNA, GRANDE, Y LIBRE



Fadi Hassanek Euskadiko Palestinarren Elkartearen Facebook orrian idatzitako zenbait mezu ikusgai goian. Twitterren jendeak kaptura hauek erakutsiz edukia aurpegiratu izan dionean, ez du egiletza sekulan zalantzan jarri eta adierazi izan du orri horrek "izaera sarkastikoa" zuenean idatzi zituela.

KONFINATUTA HASSANEN ETXEAN

2020ko martxoaren hasiera da. Donostian bi pertsonak Gros auzoko Jose Maria Soroa kaleko 12.ean aurkitu dute alokatzeko gela bana. Faddi Hassan ere bertan bizi da alokairuan, baina bera da beste bi gelak azpi-alokatzen dituen. Handik astebetera alarma egoera ezarri du Pedro Sanchezek eta 24 orduz etxebizitza berean sartuta geratu dira konfinatuta. Hiru aste nahikoak izan dituzte Hassanekin ezin dutela gehiago ikusteko. Aurretik elkar ezagutzen ez zuten bi pisukideek alde egingo dute, nahiz eta pandemiaren asterik gogorrenak izan eta kalera ateratzea zeharo debekatuta egon. Apiril hasiera da eta badoaz hortik.

Bien ustez elkarbizitza lehertzen du Hassanek, eta xehetasunetan sartuko ez bagara ere, bakoitzari fidantza gisa kobratutako 800 euroak ez dizkie itzuli nahi, sei hilabete igaro arren zirenetik. DonostiCup txapelketarako talde palestinar bat ekartzea kudeatzeaz gain, ez duenez lanik egiten, jendea engainatzen bizi dela uste dute bi pertsona hauek. Biekin istilu gogorak izango ditu, gainera.

Dei dezagun Lorea bietako bat. Etxe hartan utzi zituen gauzen bila joan da bi lagunekin. Hassan etxean dago, eta sinatu arazi nahi dion paper baten harira eztabaida hasi da. Lorearen lagunetako

batekin tematuko da Hassan, mehatxatu egin duela esanez hasi eta poliziarri deika amaitzeko. Erabat harrituta, azken gauzak jaso eta badoaz bertatik. Korrika jaitsiko da Hassan eskaileretatik, bi pertsonetako bati besotik heldu, honek gainetik kendu, Hassanek bere burua lurrera bota eta mugikorra hautsi diola esanez oihuka hasi da. Iskanbila lehertu da erdian sartu den hirugarren pertsona bularrean jo duenean. Polizia iritsi da, identifikazioak, ezagutzen dutela diote, salaketa gurutzatuak. 800 euroak, baina, ez dizkio itzuliko.

Bigarren pisukidea dei dezagun Iosu. Aterpea lortzeko urgentzia zuelako sartu zen etxe hartan, baina beste kidea joaten ikusi eta ordubetera, berak ere hanka egingo du gurasoen etxera. Gauzen bila joandakoan, fidantzako 800 euroak hilabete amaieran ordainduko dizkiola esan dio Hassanek. Ados. Epea ongi kuntplututa dirua ez diola itzultzen ikusita telefonoz deituko dio: "Erabaki dut ez dizudala ordainduko, eta sinatu genuen papera ipurzulotik sar dezakezu", bota dio Hassanek. Bere etxera doa, kalera atera da Hassan eta eztabaidan hasi direnean tentsioa lehertu da. Orain Hassan da Iosu jo nahi duena. Badoa hortik, fidantza lapurtu nahi diola argi geratu baitzaio.

Espektakulua, gutxitan ikusten den horietakoa. "Putakume zikina, ko-

munista-terrorista! Voxekoa naiz eta Voxekoek zu bezalako jendea hiltzen dugu", botatzen dio kaletik. "Nire arroparekin sartzen zen. Ni seko harrituta nengoen. Euskal Herrian Voxeko tipo bat kaletik mehatxuka neukan. Ertzaintzari deituko niola esan behar izan nion". Haren erantzuna, oihuka, Grosen barrera, erabat sututa: "Kabroia, Ertzaintzari deika? Polizia traidora, boterera heltzen garenean desegingo dugu!". Azkenean polizia iritsi eta Hassan atxiki dute. Patruila honek ere ezagutzen du Hassan.

Denbora aurrera doa eta Iosuk 800 euroak berreskuratzeko Donostiako Maizterren Sindikatura jo du, kalean ikusi duen kartel batek animatuta. Sei lagun daude eta hasieran erdi lotsatuta, pertsona horrekin izan dituzten arazoak kontatu dizkie. Amaitu duenean, aho bete hortz utziko du kide batek egin duen lehen galderak: "Zure jabea ez da Voxeko palestinarra izango, ezta?". Benetan Voxekoa al zen? Seitik lauk ezagutzen dute Hassan eta aurretik izan dituen lisarren berri emango diote Donostiara bizitzera etorri eta etxe horretan amaitu zuen gazteari. Orain argi geratu zaio, Lorearekin hitz egin, abokatu bat hartu eta fidantza berreskuratzeko epaitegian salaketa jarri behar badiote, salaketa jarriko diote. Bost urteko ibilbidean bat gehiago. ●